

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ostegun honetan arrantzatu dute Bidasoan denboraldi honetako hainbat negutako hamabigarren izokina

Harrapaketa horien ondorioz, arrantza galarazi da izokinak harrapatzeko tartean, maiatzaren 24ra (ostirala) bitarte, hori barne

Ostirala, 2018.eko maiatzak 18

Maiatzaren 17ko (osteguna) arratsaldean, hainbat negutako hamabigarren izokina arrantzatu zuten Bidasoan izokinak harrapatzeko tartean; hots, 4.750 gr-ko arrain basatia. Hamabigarren ale hori harrapatzearekin batera, araudiaren arabera, astebeteko debekua ezarri da (maiatzaren 18tik 24ra, biak barne), izokina babesteko neurri gisa. Beraz, egun horietarako emandako baimenak bertan behera geratzen dira.



Ostegun honetan harrapatutako hainbat negutako izokinaren irudia

Denboraldia maiatzaren 25ean, 26an eta 27an irekiko da berriro, eta, ondoren, itxi egingo da maiatzaren 28tik ekainaren 13ra bitarte (biak barne) ezarritako debeku-denboraldirako. Denboraldia uztailaren 30ean amaituko da (31 asteartea da, ez laneguna) edo guztira 66 izokineko kupora iritsitakoan, urteko izokinak edo hainbat negutakoak izan ala ez. Izokinaren harrapaketak [hemen](#) egiazta daitezke.

Gogoratu behar da aurtengo denboraldian beharrezkoa dela [eguneko baimena](#) eta baimen pertsonala izatea. Aurreko estekan ikus daiteke egun baliodunen egutegia nahiz izokinaren arrantzari buruzko informazioa.

Orain arte, harrapatutako 12 izokinak hainbat negutakoak izan dira (luzeran 70 cm izatera iristen direnak), batez beste 4,7 kg-ko pisuarekin eta 76,3 cm-ko luzerarekin. Arrantzatutako aleen erdia basatiak dira eta beste erdia Mugaireko arrain-haztegiko birpopulazteetakoak.



Informazio-kartela.